Deusto
Facultad de Ciencias de la Salud
Osasun Zientzien Fakultatea
Faculty of Health Sciences

PSIKOLOGIA

Sartzeko gomendatzen den profila

Psikologiako i**kasketetan sartzeko**, ikasleei profil hau izatea **gomendatzen zaie**:

- Espainiar **Batxilergo** mailako gaitasunak izatea, edozein modalitatetan, Biologiako eta Matematikako/Estatistikako oinarrizko ezagutzak barne.
- **Psikologia** edo antzeko zientzietako aldez aurreko prestakuntza izatea.
- **Gaztelania eta ingeleseko** B1 maila gutxienez izatea eta titulazioak ezartzen duen maila lortzeko konpromisoa hartzea.
- Irakasgaiak **euskaraz egin nahi dituzten** eskatzaileek hizkuntza horretako maila ona eduki beharko dute.
- Ikasketa-**espediente** ona izatea.
- Giza garunaren eta jokabidearen funtzionamendua ezagutzeagatiko eta pertsonen ongizate eta garapenagatiko interesa eta jakin-mina izatea.
- Pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna eta besteen premiekiko sentsibilitatea izatea.
- **Introspekziorako** gaitasuna, norbere burua ezagutzeko zabaltasuna eta heldutasuna izatea.

Gomendio horiek Graduaren berezko gaitasunak garatzen laguntzen duten ezaugarri guztiei erantzuten diete. Beraz, hautaketa prozesuan positiboki balioetsiko dira elementu horiek.